


Zurekin

Pintura, musika eta argazkilaritza bateratzen dituen 'Sastraka/Maleza' egitasmoa aurkeztuko du Erein-ek, laster

Martxoaren 10ean aurkeztuko du, eta bi formatu izango ditu: liburua eta erakusketa



PAUL PICADO
Igandea, 6 martxoa 2022, 21:32





Pintura, musika eta argazkilaritza bateratzen dituen 'Sastraka/Maleza' egitasmoa aurkeztuko du Erein argitaletxeak, laster. Zehazki, martxoaren 10ean egingo du, eta bi formatu izango ditu. Alde batetik, liburu bat prestatuko dute, eta bestetik, erakusketa egingo dute, Gasteizen, Donostian eta Iruñean, aurtzen; Bilbon, 2023. urtean.

Lau sortzailek parte hartuko dute, besteak beste, Pello Lizarralde idazlea, Imanol Ubeda musikaria, Jose Ignacio Agorreta argazkilaria eta Imanol Rayo zinemagile eta argazkilaria. Baina zertan datza egitasmoa? Bada Pello Lizarralde idazleak testu bat bidali zion Jose Ignacio Agorreta margolariari, eta honek, zenbait margolan egin zituen horretan oinarrituz. Aldi berean, Imanol Ubeda musikariak hamabi kanta konposatu zituen testu bera oinarritzat hartuz, eta Imanol Rayok gaiarekin lotuta zeuden zenbait argazki atera zituen.

Horrela, testua, margolanak, kanta jasotzen dituen doinuak eta argazki guztiak bilduta, liburua osatu du Erein-ek. Eta hori izango da, hain zuzen, martxoaren 10ean, aurkeztuko duena. Donostian izango da, eta egun horretan, Imanol Ubedak eta Don Inorrez-ek kontzertua emango dute, egitasmo honetarako sortu dituzten kanta abesteko. Bestalde, esan bezala, erakusketa bat ere izango da, lau sortzaileek egindako lan guztia erakusteko.

Egileek diotenez, «bidaia labur bat dago horren guztiaren atzetik. Heriotzaren kontzientzia, apur bat bada ere, izan orduko, gero eta maizago harrapatzen gaitu iraganera itzultzeko bideak hartzeak. Eta itzuli egin behar jakiteko bidearen buruan itzalak eta dezepzioa besterik ez dagoela eta irtenbideren bat bilatzera behartuta zaudela». Liburuari buruzko informazio gehiago [hemen](#) eskura daiteke.

TEMAS Euskera
TENDENCIAS 
Comentarios 

PATROCINADA

Fotos

- 

«La moda rápida mata»: tres amigos vascos crean la ropa «sostenible de verdad»
- 



Los mejores estilismos vistos en el 'street style' de Milán
- 

«Brutal» ataque ruso en Járkov: un misil hace estallar un edificio del Gobierno
- 

El sexto día de guerra en Ucrania, en imágenes


Vídeos

Lander Álvarez de Eulate, zuhaitzak artelan bilakatzen dituen lorezaina



EL CORREO

© DIARIO EL CORREO, S.A. Sociedad Unipersonal.
C/ Gran Vía 45, 3ª planta, 48011 Bilbao



En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <https://ec.europa.eu/consumers/odr>.

vocento 